



**EMAKUNDE**

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

**Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna**  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**2016ko ZIFRAK,  
Euskadiko emakumeen  
eta gizonen egoerari  
buruzkoak.**

*laburpena*

## AURKIBIDEA

<b>1. DEMOGRAFIA-AZTERKETA.....</b>	<b>3</b>
<b>2. BALIABIDE EKONOMIKOETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA .....</b>	<b>5</b>
<b>3. GIZARTE-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA .....</b>	<b>9</b>
<b>4. PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA .....</b>	<b>11</b>
<b>5. GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA .....</b>	<b>13</b>
<b>6. INDARKERIA .....</b>	<b>14</b>

## 1. DEMOGRAFIA-AZTERKETA

2015ean, EAEn 1.116.329 emakume bizi dira; alegia, biztanleria osoaren %51,4 dira emakumeak (2.173.210).

Gizonak baino emakume gutxiago dago beheko adin-tarteetan, nahiz eta alde hori inoiz ez den ehuneko bi puntu baino handiagoa. Hala ere, 50 urtetik aurrera, kontrakoa da joera, emakume kopuruak gaintitu egiten baitu gizonena, goranzko joeraz: 80 urtetik gorako biztanleen artean, emakumezkoak dira ia hirutik bi.


EAEn erroldatuta dauden emakume atzerritarrak (68.010) Erkidegoan bizi diren emakumeen %6,1 dira, eta %49,4 dira atzerritarren artean.

Jaiotza-kopuruak behera egiten jarraitzen du 2010etik geroztik: 18.848 jaiotza erregistratu ziren 2015ean, 2014an baino 530 gutxiago. Jaiotza jaistearekin batera, ama izateko batez besteko adina ere handitzen ari da apurka-apurka (32,8 urte).

2015ean, 35 urtetik beherakoa zen ezkondu ziren emakumeen %55; gizonen artean, berriz, %42,5 zeuden adin-tarte horretan. Sexu berekoen arteko ezkontza kopuruak gora egin du pixka bat, 2015ean (147 ezkontza).

2015ean, 10.741 emakume eta 10.762 gizon hil dira, EAEn. Emakumeen hilkortasun-tasak gizonena baino txikiago izaten jarraitzen du: 9,6 eta 10,3, hurrenez hurren. Tasa bien arteko aldea asko handitzen da adinak gora egin ahala.

## DEMOGRAFIA-AZTERKETA



Bizi-itxaropena	
EMAKUMEAK	86,0 URTE
GIZONAK	80,2 URTE
Emakumeak	Gutzizkoaren gaineko %
> 70	%59,7
> 80	%64,9

## JAIOTZA-TASA

2015 Jaiotzak, guztira **18.848 (%2,7 gutxiago, 2014. urtearen aldean)**

Amen %35,2: 35-39 adin-tartekoak

Ama izateko adina, batez beste: 32,8 urte

Amen %41,6 ez zegoen ezkonduta (goranzko joera).

## HERIOTZA-TASA

2015 Heriotzak, guztira **21.503 (% 49,9, emakumeak)**

Hilkortasun-tasa gordina (heriotzak x 1.000 biztanleko) 9,9 (9,6 emakumeen tasa)

## 2. BALIABIDE EKONOMIKOETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA

Lan egiteko adinean dauden emakumeek merkatuan %52,2ko partaidetza izan dute, 2015ean. Datu horrek erakusten du positiboa izan dela tasaren bilakaera, baina oraindik ere urrun dagoela gizonen jarduera-tasatik (%63,4) eta Europar Batasunak finkatutako helburuetatik.

44 urtera arte, emakumeen eta gizonen jarduera-tasak ez du desoreka handirik islatzen, desberdintasun batzuk gorabehera. Hala ere, adinak gora egin ahala, nabarmen jaisten da emakumeek merkatuan duten parte-hartzea: 44 urtetik gorako emakumeen jarduera-tasa %37,7 da, eta gizonena, %51.

Emakumeen eta gizonen jarduera-tasa handiagoa da seme-alabak dituztenean; hala ere, seme-alabak 2 edo gehiago direnean, oso desberdina da emakumeek eta gizonen merkatuan duten presentzia.

EAEan, emakumeen enplegu-tasa %44,3 da, gizonena baino 9 puntu gutxiago (53,5). Berriz ere, 35 urtetik beherako adinetan, desberdintasun batzuk ikusten dira enplegu-tasetan, baina adin horretatik gora, nabarmen handiagoak dira gizonen enplegu-tasak.

Emakumeek langabezian izan duten posizioa askoz negatiboagoa izan da, historikoki. Egoera hori aldatu egin da azken krisiaren eraginez: desberdintasunak emakumeen aldekoak izan dira; batez ere, lehen urteetan. 2015ean, emakumeen langabezia-tasa 15,1 da, eta gizonena, 15,6; beraz, emakumeen eta gizonen langabezia orekatuta dago (erregistratuta dagoen langabezian, emakumeak gehiago dira).

Lan-merkatuan ere argi ikusten dira desberdintasun batzuk; nabarmenena, hauxe: emakumeak gehiago dira denbora partzialeko enpleguan. Izan ere, EAE lanaldi partzialeko enpleguak dituztenen artean emakumeak %77,5 dira; lanaldi osoko enpleguak dituztenen artean, berriz, %40.


Nahiz eta aldi baterako kontratuak (kontraturik gabeko enpleguak) oraindik ere ohikoagoak diren emakumeen artean (%27,2 eta %23,1), 2015ean erregistratutako kontratuetan ia erabateko oreka ikusten da emakumeen eta gizonen artean, kontratazio mugagabeari edo aldi baterako kontratuari dagokienez.

Bestalde, lan-merkatuko segregazio horizontalak ez du erakusten zuzenketa nabarmenik gertatzeko zantzurik, eta aldaketak oso motel gertatzen dira. 20 urtetan, emakumeak industria-enpleguan %14,8 izatetik %21 izatera pasatu dira 2015ean, bilakaera handiena lehen hamarkadan gertatu bazen ere. Eraikuntzan enpleguen %11,8 baino ez dute okupatu, eta lehen sektorean ere gutxiengo dira (%30).


2015ean, jarduera ekintzailearen indizeak 0,5 puntuko aldea du emakumeen eta gizonen artean (3,1 emakumeak, eta 3,6 gizonak); hala ere, aurrean, lehen aldiz, EAEko emakumeek gizonen baino presentzia handiagoa izan dute ekintzailetza potentzian (datozen 3 urteak). Soldatarik gabeko langileen artean (enplegu-emaeleak, autonomoak edo kooperatibistak), emakumeak gutxiengo dira (%37), eta, "familia laguntzan", berriz, gehiengo (%68).

## LAN PRODUKTIBOA


**Jarduera-tasaren bilakaera**





**Jarduera-tasa, adinaren arabera, 2015**



**Jarduera-tasa, seme-alaben arabera, 2015**




**Enplegu-tasa, adinaren arabera**




**2015eko langabezia-tasa (batez beste, 14,3)**  
**Gizonak 14,8**  
**Emakumeak 13,8**


### Okupazioa




**Erregistratutako kontratu mugagabeak, 2015**  
Guztira: 60.037




**Erregistratutako aldi baterako kontratuak, 2015**  
Guztira: 807.218




### Biztanleria landuna, sektoreka, 2015



**Ekintzailetza 2015**



**Gizarte Segurantzara afiliatutako autonomoak 2015**





### 3. GIZARTE-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA

2015ean, neska eta mutilen arteko presentzia orekatuta dago derrigorrezko irakaskuntzan eta haur hezkuntzan. Desberdintasunak Batxilergoan hasten dira ikusten, non nesken presentzia pixka bat handiagoa baita, eta, batez ere, Lanbide Heziketan, non mutilak diren ikasleen %66 baino gehiago.


2015ean, emakume gehiago dago unibertsitate-irakaskuntzan: 35.292 emakumek unibertsitate-ikasketak egin dituzte urte horretan (gizonak, 31.768).

Desoreka horiek areagotu egiten dira lanbide-familia edo -eremuko segregazioa aztertzean. Izan ere, emakumeak gehiago dira gradu hauetan: Irudi Pertsonala, Gizarte eta kultura-zerbitzuak eta komunitatekoak eta Osasuna (LH) eta Osasun-zientziak (unibertsitate-ikasketak); gizonak, berriz, gehiago dira (%70) honako hauetan: Ingeniaritza eta Arkitektura (unibertsitate-ikasketak): Elektrizitatea eta Elektronika, Informatika eta Komunikazioak, Instalazioa eta Mantenimendua, Fabrikazio Mekanikoa ... (LH).


EAEko emakumeen eta gizonen errenta pertsonalari buruzko datuetan (2104) alde esanguratsu bat ikusten da: emakumeek 14.711 € jasotzen dituzte batez beste, eta hori gizonen batez besteko errentaren %60 da (24.417€; ia hamar mila euroko aldea, urtean). Aldea are handiagoa da erretiro-pentsioan: emakumeen batez besteko erretiroa (821,4€ hileko) gizonen batez besteko pensioaren %54,5 da (1.507€ hileko).

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen zuten guztien artean, emakumeak %56,8 dira (2014an erregistratutakoaren proportzioa txikiagoa; %57,4).

## HEZKUNTZA




### Unibertsitatean matrikulatutako ikasleak, graduko ikasketak eta 1. eta 2. zikloak, jakintza-adarren eta sexuaren arabera



## ERRENTA

### Batez besteko errenta pertsonala, errenta-motaren arabera. 2014



#### 4. PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA

EAEn, XI. Legegintzaldian, Legebiltzarrean emakumeak erdiak baino gehiago dira ordezkari guztien artean: %54,7 dira; 2005az geroztik, oreka lortu da emakumeen eta gizonen artean.


Batzar Nagusietan ere oreka horri eusten zaio: 72 emakume eta 81 gizonek lortu zuten jarlekua 2015ean, nahiz eta hiru foru aldundietan gizonezkoak diren buru.

Udal eremuan, emakume zinegotziak %40 inguru dira; alkate diren emakumeak, ordea, gutxi dira (%25 baino ez).


Eremu politiko instituzionalean aldaketa nabarmen batzuk gertatu badira ere, oso nabarmena da instantzia ekonomiko eta sozialetako zuzendaritzetan emakumeek duten partaidetza urria: emakumeak %26 dira egoitza EAEn duten IBEX 35eko enpresetako administrazio-kontseiluetan, eta %22, egoitza EAEn duten finantza-erakundeetako administrazio-kontseiluetan (eta, berriz ere, ez dago emakume bakar bat ere buru denik).

## PARTAIDETZA / BOTEREA


**Presentzia: Legebiltzarrean eta Batzar Nagusietan**



**Emakume alkateak eta zinegotziak (%)**



**Administrazio Kontseiluak edo Zuzendaritza Orokorrak**



## 5. GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA


Lan produktiboa eta ugalketa-lana uztartzeko ardura oraindik ere emakumeek hartzen dute gehienbat: 14.266 emakumeek eskatu eta jaso zituzten amatasungatiko prestazioak (prestazioen %94,7).

Seme-alabak zaintzeko eszedentzia eskatzen duten gehienak ere emakumeak dira; alde handiaz, gainera: %93,3 eta 83,2, hurrenez hurren. Gainera, aitatasungatiko prestazioak beherantz joan dira azken 5 urteetan (-%17), eta beherakada hori jaiotza kopuruarena baino nabarmenagoa da (- %11).


Emakumeek eta gizonak denbora desberdin erabiltzeak agerian uzten du eutsi egiten zaiela rol berezitu horiei, baita biak lan-merkatuan daudenean ere.

### UGALKETA LANA


**Amatasun-prestazioen hartzaileak, sexuka. 2015. Guztira: 15.067**




**Seme-alabak zaintzeko eszedentzia, 2015. Guztira: 3.907**



**Senideak zaintzeko eszedentzia, 2015 Guztira: 452**



### DENBORAREN ERABILERAK




## 6. INDARKERIA

3.999 emakumek jasan dute emakumeen aurkako indarkeria: 2.899k bikotekideen edo bikotekide ohien eskutik, 845ek senitartekoen eskutik eta 255ek beste erasotzaile batzuen eskutik. 2015ean, 3 heriotza gertatu dira. 2002. urteaz geroztik, 28 heriotza erregistratu dira.

2015ean, 38 emakumek bizkartzaina izan dute babes-neurri gisa. Ertzaintzak 1.638 babes-agindu jaso ditu epaitegietatik; gehienak, (%88,8) bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindako indarkeria dela-eta.

### EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Genero-indarkeriaren erasotzaileak, adinaren arabera. 2015



Emakume biktimak, indarkeria-motaren arabera. 2015

